2012-XII-18
Número **387.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

astekaria

# EDITORIALA

## Gardentasuna

**Langile mugimenduari bereziki zilegitasuna eta sinesgarritasuna eskatu behar zaio bere jardunean eta bere praktikan. Kapitalaren bultzadaz eta aginte politikoaren konplizitatearekin lan harremanen mundua erabat desorekatu egin da, produkzio katean ahulen den langilea babesik gabe uztea helburu izan dutelarik. Haatik, berebiziko garrantzia du erakunde sindikalak, langileak organizaziora erakartzeko xedearekin, helburu argiak eta bitarteko gardenak bezain eragin-korrak kudeatzea, hartara zilegitasuna eta sinesgarritasuna irabaziko duelarik.**

**Krisiak gogorki kolpatzen gaituen honetan, hirugarrengoz gure organizazioak hedabideen aurrean bere afiliazioa egiaztatzeko eginiko saioak balio ikaragarria du sinesgarritasun hori irabazte aldera. Are gehiago esan behar hirugarrengo honetan afiliazioaren emaitzak kaskarragoak direnean. Aurki gauzatuko dugun XIII. Kongresuari begira emaitza negatiboa aurkezten dugu datuetan. Izandako bajak egin ditugun altak baino gehiago dira eta emaitza hori da. Enplegu suntsiketa, prekarizazioa, lan baldintzen narriadura eta babes eta berme juridikoen ahultzeek, besteak beste, ekarri dute bajen kopurua. Ez da nabari ordea sindikatuarekiko urruntasuna edo atxikimendu eza, baizik eta egoera ekonomikoak eta langabezia itzelek ekarri dute hori. Bestalde aipatu beharra dago, epealdi honetan sindikazio kopuruan ere irabazi dugula, alegia lan merkatuan lan egiten dutenen kopurua askoz gehiago jaitsi da gure afiliazioa baino eta ondorioz, proportzioan lehen baino afiliazio tasa handiagoa dugu.**

**Hedabideen aurrean honako egiaztatze prozesua burutzeak geroz eta sinesgarriago egiten du gure proiektua, are eta gehiago ezagutzen dugun beste inork ez du egiten eta. Militanteek afiliatzen egiten duten lanaren errekonozimendua ere bada, aitortu beharreko ezin-besteko lana, alegia. Ez gezurrik, ez ezkuturik. Sinesgarria eta gardena da gure proiektua.**

**Lankidetu!**

### ELAk bere afiliazioaren eta kontuen auditoria publikoa egin du, XIII. Kongresu Konfederalean aurkeztuko dituen datuak azaltzeko

# "INOIZKO SINDIKAZIO TASARIK ALTUENA DUGU"

Abenduaren 11 ezohiko eguna izan zen ELAk Bilbon duen egoitzan. Izan ere, egun horretan ELAk bere afiliazioaren auditoria publikoa egin zuen hirugarrengoz. ELAren afiliazio arduradun Txema Laisekak auditoriaren balioa nabarmendu eta daturik esanguratsuenak aztertzen ditu.

**-ELAk Kongresuan aurkeztuko dituen afiliazio datuen auditoria publikoa egin berri du. Zergatik auditoria?**

-Abenduaren 11n egin genuena gure sindikatuaren gardentasun politikaren beste adibide bat da. ELAn beti garrantzia handia eman diogu gardentasunari, ez dugu ezer ezkutatzeko. Kontutan izan behar dugu afiliaziori buruzko datuak soilik Kongresu Konfederalen bueltan ematen ditugula. Hori dela eta, funtsezkoa ikusten dugu publiko egiten ditugun datu horiek sinesgarriak izatea ehuneko ehunean. Horregatik egiten dugu auditoria publikoa.

**-Zein egoeratan heltzen gara Kongresura afiliazioari dagokionez?**

-105.312 afiliatu ditugu gaur egun –datuak irailaren 30ekoak dira–. Aurreko Kongresuarekin alderatuz, 4.006 afiliatu gutxiago dira. Datu honen zergatia oso agerikoa da. Azken lau urteetan, Kongresuen arteko epeaz mintzo garelarik, 127.500 lanpostu galdu dira Hego Euskal Herrian. Agerikoa den bezala, enplegu suntsiketa honek ondorio oso zuzena izan du afiliazioan. Ezin liteke bestela izan, kontutan hartzen badugu gurean lanean ari diren pertsonen kopurua %12,13 jaitsi dela azken lau urteetan. Hala ere, badira oso positiboki baloratzen ditugun puntuak.

**-Zeintzuk lirateke?**

-Batetik, afiliatu berri ugari egiteko gai izan gara. Bizi dugun abagune ekonomiko larria ikusirik balio handia eman behar diogu horri, antolakuntza arloan egindako lan onaren seinale delako. Etorkizunean ere bide honi eutsi beharko diogu. Funtsezkoa iruditzen zait ELAren militantziak egiten duen lana goraipatzea. Lan horri esker eta ekonomiari dagokionez azken urteetako abagunerik okerrenean egon arren, inoizko sindikazio tasa altuena izatera heldu gara, %10,34. Honek zera esan nahi du: lanean diharduen soldatapeko langileen artean %10,34a ELAn afiliatuta dago. Aurreko Kongresuarekin alderatzen badugu, kopuru hori %7,26 handiagoa da.

**-Askotan aipatzen dugu, baina jakina da proiektu sindikalaren zutabe nagusia afiliazioa dela.**

-Noski, eta ideia horretan sakontzea ezinbestekoa da. Beti aipatzen dugu, baina ezinezkoa da proiektu independente eta autonomo bat garatzea autonomia ekonomikorik ez baduzu. Puntu honetan ere datuak positiboak dira.

Diru sarrerei begiratuta, kuoten pisuaren bilakaera gero eta handiagoa da. Gure sindikatuak ingresatzen duen diruaren %88,9a kuoten bidez ingresatzen du. Honek egiten duena da gure finantza-autonomia %90aren langa gainditzea. Aurreko Kongresuan eman genituen datuei begiratzea komeni da arlo honetan ere. 2008an kuoten bidez %85,7a jasotzen genuen. Bilakaera positibo honek etorkizunean baikorrak izatea eta egungo eredu sindikalean jarraitzeko indarra ematen digu.



*Afiliazio datuen inguruan egin zen auditoria publikoaren argazki bat. ELAren izenean honako lagunek hartu zuten parte: Adolfo Muñoz, idazkari nagusia; Amaia Muñoa, idazkari nagusiaren-albokoa; Txema Laiseka, afiliazio arduraduna; eta Patxi Agirrezabala, komunikazio arduraduna.*

## "TENEMOS LA MAYOR TASA DE SINDICACIÓN DE NUNCA"

ELA hizo el 11 de diciembre una auditoría pública sobre los datos de afiliación y autonomía financiera. Esos datos, un ejemplo de trasparencia sin parangón, son los que presentará nuestro sindicato en el XIII Congreso Confederal. Txema Laiseka, responsable de afiliación, fue una de las personas encargadas de presentar los datos.

"El primer dato a destacar es que somos 105.312 afiliados y afiliadas. Eso significa 4.006 personas afiliadas menos que en el anterior Congreso, un 3,66%. Esta alta afiliación es un dato muy a valorar. No vamos a decir nada que no se sepa sobre la coyuntura económica que estamos sufriendo".

"La destrucción de empleos en el periodo entre congresos –añade Laiseka– ha sido de 127.500 personas asalariadas. Con semejante destrucción de empleo el esfuerzo afiliativo de nuestro sindicato es muy positivo. Como dato, ELA ha incrementado su tasa de sindicación; nuestra tasa de penetración en las empresas ha subido hasta el 10,34%, un 7,6% más que en el 2008".

Txema Laiseka considera también muy importante que en estos cuatro años ELA haya reforzado su autonomía financiera. "En el capítulo económico-financiero, el dato clave para ELA es que el peso de la cuota ha mejorado en 3,2 puntos, pasando del 85,7% al 88,9%, lo que permite aumentar la autonomía financiera y política del sindicato. Es un dato que nos hace ser optimistas en el futuro del sindicato y refuerza nuestro modelo sindical".

## Casi un millar de delegados/as de ELA-Metala calientan motores y preparan la pelea de cara a la negociación colectiva de 2013

# "LAS CONDICIONES DE TRABAJO SE BLINDAN EN LA EMPRESA"




El 11 de diciembre, cerca de un millar de delegados y delegadas del Metal de ELA se reunieron en Bilbao en una jornada de reflexión y lucha, preparatoria de la negociación colectiva de 2013. En el acto tomaron la palabra el responsable confederal de negociación colectiva, Joseba Villarreal, el secretario general de ELA-Metala, Unai Martínez, así como delegados y responsables sindicales de empresas cuyas luchas están siendo emblemáticas. Y es que, tal como destacó Martínez, uno de los objetivos de la jornada era convencerse de que a pesar de la nueva coyuntura en la que las últimas reformas han situado a la negociación colectiva, es posible negociar en las empresas pequeñas, tal como se ha demostrado en Placisa. De que hay gente dispuesta a plantar cara al chantaje de la patronal, como se está demostrando en Laminaciones Arregui. De la importancia de una sección sindical organizada en la gran empresa, como es el caso de Tubos Reunidos; o que después de lograr un buen convenio no cabe dormirse, hay que defender su cumplimiento, como se está haciendo en la ITV de Urnieta e Irún. Tal como destacó el máximo responsable de ELA-Metala, son sólo cuatro ejemplos del enorme trabajo que están haciendo los delegados/as de ELA en las empresas; trabajo que alabó y que animó a intensificar.

### LA CLAVE, EN LA EMPRESA

El responsable de negociación colectiva, Joseba Villarreal, comenzó su intervención afirmando que las reformas de la negociación colectiva realizadas dejan patas arriba la negociación tal como la hemos conocido hasta ahora, e insitió en que "digan lo que digan algunos, lo que ha valido ya no vale, porque la patronal no va a renunciar a los instrumentos que han puesto a su alcance". Villarreal reiteró, asimismo, la necesidad de hacer nuevos planteamientos ante los nuevos tiempos y, en este sentido, tuvo palabras para otros sindicatos "que solo son capaces de ponerse de acuerdo a la hora de dar caña a ELA, a pesar de coincidir con nosotros en el diagnóstico de la situación. Que quede claro. Ni hemos sido nosotros quienes hemos cambiado las leyes, ni hemos aplaudido lo que ha hecho el gobierno, ni aplicamos la reforma, ni firmamos acuerdos en Madrid. A nosotros nos gustaría que la negociación colectiva fuera como antes, con mejores contenidos, pero no es así; y lo que no vamos a hacer es engañar a nuestra gente ni venderles falsas esperanzas".

Posteriormente, pasó a desgranar los principales cambios en la negociación colectiva y sus consecuencias, es decir, la centralización de los convenios: se decide en Madrid qué se puede negociar y dónde; y la prioridad aplicativa de la empresa. "La clave está en la empresa. En la empresa se puede negociar siempre, y cualquier contenido. Se puede de pactar por debajo del convenio sectorial Provincial, es decir, el Convenio provincial deja de ser mínimo, no obliga. Dicho de otra manera, la única manera segura de parar la reforma laboral es que no entre por la puerta de nuestras empresas. No hay mejor manera, ni más eficaz, ni más fácil, ni más completa de blindar nuestras condiciones de trabajo que la empresa".

Villarreal continuó afirmando que si la clave de la negociación colectiva está en la empresa no queda otra que organizar y sindicalizar las empresas. "Debemos llegar más y mejor a las empresas. No tenemos otro remedio que afiliar, porque afiliar es vincular, compartir, discutir... Vamos a tener que pelear sí o sí para lograr convenios con contenidos, por lo que hay que prepararse para el conflicto".

Finalmente, Villarreal desgranó las materias que habrá que negociar en los convenios de empresa. Las de siempre: subidas salariales, reducciones de jornada, empleo, reducir discriminaciones, conciliaciones, salud laboral... Y las nuevas, anti reforma: inaplicación, flexibilidad, ultraactividad... Asimismo, adelantó que los convenios se bloquean o desbloquean en función de los contenidos, y destacó que es la patronal la interesada en bloquearlos.

### PREPARANDO LA PELEA

Por su parte, el secretario general de ELA-Metala, Unai Martínez, destacó en su intervención que "estamos viviendo una gran estafa y tenemos el dudoso honor de formar parte de la clase estafada. La patronal quiere aprovechar la coyuntura para destrozarnos. Todo está planeado. Se aprovechan del alto desempleo, del despido más barato y del miedo para que la gente trague con todo. Nos dicen que hay que trabajar más y cobrar menos porque ahí está la solución cuando es mentira. Siguiendo ese mismo análisis, Bulgaria estaría mejor que Noruega. Vivimos en una versión del capitalismo donde la mentira es la norma. Empresas con beneficios millonarios quieren despedir y aumentar la jornada de los que se quedan para suplir a los despedidos. Cada vez que nos quieren bajar el salario o eliminar derechos no lo hacen para aumentar o mantener beneficios; lo hacen, nos dicen, por la '*productividad*' y la '*competitividad*'".

Martínez continuó su exposición afirmando que la credibilidad de las patronales del estado español –vascas y navarras incluidas– se puede definir en tres palabras: Gerardo Díaz Ferrán. "Nos decía que había que trabajar más y cobrar menos mientras él, patrón de patronos, no pagaba nóminas y vendía billetes de avión sin avión. Esta es la gente que nos dice que vamos todos en el mismo barco y que hay que remar juntos en la misma dirección".

El secretario general de ELA-Metala, tras destacar que si la patronal defiende sus privilegios la clase trabajadora tendrá que defender sus derechos, auguró años duros en los que tenemos que ser capaces de tener un plan organizado en cada empresa. "Solo con voluntad no vamos a conseguir nuestros objetivos. Estamos viendo cada día que donde estamos organizados y trabajamos con la gente estamos consiguiendo avances".

En otro momento, Martínez insistió en que los delegados/as de ELA en cada empresa "tenemos que ser la vacuna contra el miedo. El miedo no nos va a dar un buen convenio, ni un contrato fijo, ni un derecho. Una plantilla atemorizada es una invitación para que se haga con ella lo que se quiera. Y no van a tener piedad".

También desgranó la receta del trabajo sindical en la empresa. "Hay que analizar la empresa. Hacer nuestro plan, argumentar, convencer a la gente. Afiliar. Pensar que sin afiliación vamos a conseguir buenos convenios es como creer que vamos a ganar el tour de Francia sin bicicleta. Hay que trabajar las asambleas. Nos hacen falta planes y sostenerlos en el tiempo. Esas frases de antes de la reforma de 'hemos firmado el convenio para 2 años y ahora tenemos 2 años de tranquilidad' son de un mercado laboral que ya no existe".

El responsable de ELA-Metala afirmó que nuestras condiciones actuales y futuras son y van a ser el fruto de nuestra capacidad organizativa. "Hay que hacer que los convenios hablen bien de nuestro trabajo. Convenios que blindan, que garantizen que se va a aplicar lo acordado. Y no nos olvidemos: detras de un buen convenio hay siempre gente organizada que ha peleado por él. Vivimos y nos va a tocar vivir una época muy dura. Nadie decide en qué época le toca vivir, lo que decide es qué va a hacer en el tiempo que tiene, y ELA ha decidido luchar al lado de la gente. Prepararnos para la pelea. Ese es el camino".

### MANIFESTACIÓN Y CONCENTRACIÓN

**Una vez concluída la sesión de debate y reflexión, los delegados/as del metal de ELA reunidos en Bilbao se manifestaron por las calles de la capital vizcaína lanzando gritos contra la reforma laboral y de la negociación colectiva, para acabar frente a la sede de la patronal Confebask.**



# ¡LUCHAR MERECE LA PENA!

## GUARDIAN RETIRA EL ERE DE EXTINCIÓN, TRAS 60 DÍAS DE HUELGA




***La asamblea de afiliados/as de ELA votó de manera unánime el preacuerdo alcanzado.***

El sindicalismo organizado y la movilizacion contundentente van a poner freno a las pretensiones de querer empobrecer a la clase trabajadora. Lo sucedido en Guardian Laudio –la empresa ha retirado el Expediente de Regulación de Empleo que preveía 139 despidos a cambio de un ERE de suspensión de no más de 45 días al año por trabajador/a– es una prueba más de esta frase que nuestro sindicato repite una y otra vez.

Para ELA, sindicato mayoritario en Guardian, el preacuerdo alcanzado el 13 de diciembre tras 60 días de huelga con la dirección de la empresa supone un importante logro: conlleva la retirada del ERE de extinción para 139 trabajadores/as y el bloqueo de la reforma laboral. No obstante, la empresa anuncia la presentación de un ERE de suspensión, con no más de 45 dias por cada trabajador/a, con un 100 % en complementos de vacaciones y pagas extras y el 85% del salario mensual.

El preacuerdo en el convenio de empresa, que tendrá una vigencia de cuatro años, recoge mejoras salariales y de las condiciones laborales. En concreto, para el año 2102 el incremento será de 1200 € no consolidables, en 2013 de 600 € no consolidables y de 600 € si consolidables y para los años 2014-2015 el IPC correspondiente.

Además, entere otros aspectos positivos, se mantiene la ultractividad y la empresa renuncia a la inaplicación del convenio y la flexibilidad. Por último, se fija que durante la vigencia del convenio las cantidades mínimas de despido por causas objetivas, individuales o colectivas, sea de 33 días por 24 mensualidades y adicionalmente durante el año 2013 de 45 días por 42 mensualidades.

## CAF RETIRA EL ERE DE SUSPENSIÓN QUE AFECTABA A 869 PERSONAS

La federación del metal de ELA valora positivamente la decisión de la dirección de CAF de Beasain de retirar el ERE de suspensión. El ERE, que afectaba a 869 trabajadores y trabajadoras, implicaba el 20% de la jornada, lo que suponía entre 51 y 61 días para cada persona afectada. ELA recuerda que las movilizaciones –entre ellas 10 jornadas de paro de cuatro horas– y la presión de la plantilla de CAF ha sido imprescindible para que la dirección de marcha atrás.

## LA ASAMBLEA DE FORMICA RATIFICA EL ACUERDO ALCANZADO POR EL COMITÉ

En la tarde del 14 de diciembre se formalizó en los juzgados de Bilbao el acuerdo que pone fin al conflicto de Formica. El acuerdo fue ratificado por la asamblea de trabajadores y trabajadoras. La empresa ha aceptado mejorar de forma sustancial las indemnizaciones por cada despido, triplicando el mínimo legal establecido en la reforma laboral. ELA quiere destacar que la lucha y movilización de la plantilla de Formica en todo este proceso ha sido ejemplar, llegando a movilizar a toda la comarca en favor de su lucha. Tras terminar con la producción de la empresa, se mantienen 14 empleados/as en la sección comercial y oficinas.

## HUELGA INDEFINIDA EN LAS GASOLINERAS DE BIZKAIA

El lunes 17 de septiembre se celebró una nueva reunión de la mesa negociadora del sector de estaciones de servicio de Bizkaia. ELA quiere denunciar la actitud de la patronal, que sigue sin realizar ningún movimiento significativo en su plataforma. De esta forma, nuestro sindicato –junto a LAB, CCOO, UGT y USO- se ve obligado a mantener la convocatoria de huelga indefinida en las gasolineras de Bizkaia a partir del 20 de diciembre. La pretensión de los trabajadores y trabajadoras de las gasolineras no es otra que tener un convenio con contenidos y se respete lo que se firme, dejando sin aplicación la reforma laboral, reforma a la que se aferra la patronal para poder desregularizar el sector, los derechos y los contenidos del convenio.

### El Gobierno Vasco ha publicado los principales resultados de la Encuesta de Pobreza y Desigualdades Sociales 2012

## AUMENTAN LA POBREZA Y LAS DESIGUALDADES SOCIALES

La pobreza y de las desigualdades sociales aumentan años tras año. El informe *Encuesta de Pobreza y Desigualdades Sociales 2012*, publicado recientemente por el Gobierno vasco, no hace sino enfatizar eso que desde ELA venimos alertando hace tiempo.

Mikel Noval, responsable de política social, destaca que la crisis se está saldando con un fuerte aumento de la pobreza y de las desigualdades sociales. "El aumento del desempleo, los recortes de las prestaciones sociales (prestaciones por desempleo, Renta de Garantía de Ingresos, Ayudas de Emergencia Social,...), y la pérdida de poder adquisitivo de los salarios y de las pensiones está dando lugar a que cada vez más gente tenga graves problemas para poder cubrir las necesidades básicas. La situación se está convirtiendo en dramática para muchas personas".

Noval tiene claro que la responsabilidad de esta situación recae en los poderes públicos y en el poder económico y financiero. "Ellos se han puesto de acuerdo para imponer una distribución de la riqueza más injusta, para recortar los derechos laborales y sociales, para aplicar una política fiscal que ha supuesto una rebaja de la presión fiscal (permitiendo el fraude fiscal y reduciendo los impuestos a las rentas altas y al capital). Los gobiernos han hecho todo lo que ha pedido el poder económico y el poder financiero, incluyendo una enorme transferencia de fondos públicos a las entidades financieras (216.000 millones de euros en el estado español, lo que equivale a 4.500 euros por habitante)".

Para salir de esta coyuntura Noval propone un cambio radical de las políticas sociales. "Los distintos gobiernos, incluidos los de Hego Euskal Herria (Gobierno vasco, Gobierno de Navarra y Diputaciones Forales) han aplicado estas políticas neoliberales. Las políticas presupuestarias y fiscales que se han adoptado aquí van en esa dirección".

### PROPUESTAS DE ELA

- ELA considera imprescindible **aplicar políticas totalmente distintas a las que nos han llevado a esta situación.** Para atajar la pobreza y la desigualdad es necesario:
- **Mejorar el poder adquisitivo de los trabajadores y trabajadoras e impedir la precariedad laboral.** Tener un empleo estable y en condiciones de trabajo dignas es un buen antídoto contra la pobreza. Aumentar la precariedad laboral y empeorar los salarios y las condiciones de trabajo aumentan el riesgo de pobreza.
- **Prohibir los despidos en empresas con beneficios.** Es inmoral e inaceptable socialmente la práctica, cada vez más habitual, de empresas con beneficios que plantean expedientes de regulación de empleo. Esta situación también agrava la pobreza.
- **Aumentar las prestaciones sociales.** La Renta de Garantía de Ingresos (RGI) en la CAPV y la Renta Básica en Navarra deben superar el umbral de la pobreza, y las Ayudas de Emergencia Social deben ser un derecho reconocido, mejorando la actual regulación. Dar marcha atras en los recortes aprobados en los últimos años, que han reducido las cuantías y han dejado sin derecho a prestación a muchas personas (incluidas muchas personas inmigrantes).
- **Modificar la política fiscal para equiparar la presión fiscal a la media europea**, mediante la **lucha contra el enorme y creciente fraude fiscal** existente en las rentas no salariales y el aumento de la presión fiscal a las rentas altas y al capital (en el IRPF y el Impuesto sobre Sociedades).
- **Políticas presupuestarias anticíclicas**, que impulsen el empleo digno, el bienestar y la economía a través de la mejora de los servicios y coberturas públicas (prestaciones sociales, sanidad, educación, servicios sociales, vivienda social,...).

**ELAk langile guztiok langile-klase bakarra osatzen dugula gogorarazi zuen Etorkinen Nazioarteko Egunean**

# "KRISIAK IKUSPEGI ARRAZISTAK INDARTZEKO ARRISKUA DU"



*Erdian Eduardo Ruiz Vieytez. Ondoan Emerita Cuellar eta Mitxel Lakuntza, ELAren immigrazio arduradunak.*

ELAk formazio jardunaldia antolatu zuen abenduaren 14an Euskal Herriko Unibertsitateak Abando Ibarran duen Paraninfoan, Etorkinen nazioarteko egunaren bueltan. Immigrazio arduradun Emerita Cuellarrek azpimarratzen duenez, jardunaldiaren leloak –*Denok gara langile klasea. Diskriminaziorik ez*– ELAk duen konpromisoa berresten du. "Euskal Herriko langile-klasea osatzen duten horiekin dugun konpromisoa sendotu nahi dugu, bere jatorri edo kulturarekiko inolako bereizketarik gabe. Etorkizunean ere gure ekintza sindikala pertsona zapalduenen defentsan oinarritzen jarraituko dugu, jenderik zigortuena. Uste dugu garrantzitsua dela ez ahaztea guztion artean klase bakar bat osatzen dugula, langile-klasea".

Cuellarrek arrazakeria instituzionala salatu zuen, gogor. "Hazkunde ekonomikoaren garaian, herrialde *aberatsek* immigrazioa behar izan dute lan-merkatuak sortzen zizkion arazoak konpontzeko: eskulan merkea edo etorkizuneko pentsioentzako kotizatzaileak bermatzea. Kasu askotan, nagusiki prekarietatean murgildutako enpleguak laguntzen dituzte, soldata baxuekin, aldi-baterakoak eta ezbehar eta laneko heriotza tasa handiagoarekin. Beste kasu batzuetan, euren baimenak berrituko ez dituztenaren mehatxu eta segurtasun falta-pean, edo akats administratibo batengatiko kaleratuko dituztenaren arrisku-pean. Orain, hala ere, Gobernuek eta finantzen munduak sortutako krisi ekonomiko eta sozial honetan, badago etorkinak pairatzen ditugun ondorio tragikoen errua eta ardura etorkinei leporatzen dienik. Gobernuek, arrazakeria instituzionala medio, immigrazio politika bakarra dute: murrizketak eta etorkinak euren jatorrizko herrialdetara itzuli daitezen behartzea".

ELAren immigrazio arduradunarekin batera Eduardo Ruiz Vieytez mintzatu zen. Eskubidean doktore, aditua da immigrazioarekin zerikusia duten gaietan. Ruiz Vieytezek *Immigrazioa, dibertsitatea eta kultur identitateak: arazoa edo aukera?* izeneko hitzaldia eman zuen. Bertan berak idatzitako izen bereko liburuaren ardatz nagusiak jorratu zituen, hausnarketarako hamar galdera planteatuz.

Hitzaldi biribila eskaini zuen Ruiz Vieytezeko –Manu Robles-Arangiz Fundazioaren web atalean dago ikusgai–, eta diskriminazio mota oro amaitzeko sindikalgintzak duen garrantzia aipatu zuen. "Beste lurraldeetatik bere bizi proiektua hemen egitera etorri dena bizilagun bat gehiago da. Zentzu horretan kudeaketa publiko eta politikoaren ikuspegitik hiritartzat hartu behar da. Azken finean, hiritarra da, eskubide eta betebehar guztiekin, Euskal Herrian bizi eta lan egiten duen oro, nazionalitate eta dokumentazio egoerak gora behera. Ideia hauek zabaltzeko borrokan funtsezkoa da ELA bezalako sindikatu baten inplikazioa".

*ELA recordó con motivo del Día Internacional del migrante que todas las personas forman una misma clase obrera*

## LABURREAN / BREVES

### • Gizarte eredua aztergai abenduaren 19an

Aurrekontuak eta gizarte eredua. Bi horiek izango dira ELAk abenduaren 19an Iruñeako Labrit pilotalekuan egingo duen ekitaldiko ardatz nagusiak. Ekitaldia goizeko 10:00tan hasiko da, eta ELAk Nafarroan duen koordinatzaile Mitxel Lakuntzak, gizarte politiken arduradun Mikel Novalek eta idazkari-nagusi Adolfo Muñozek hartuko dute parte, besteak beste. ELAko gizarte politiken arduradun Mikel Novalek nabarmentzen duenez, "helburua Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak eta bertako zerga-politika aztertzea izango da. Ezinbestekoa da gai hauen inguruko hausnarketa sakona egitea, horiek baitira osasuna, hezkuntza edo gizarte-prestazioak bezalako gaiak ulertzeko gakoak. Gai honen inguruan bi gauza nabarmenduko nituzke. Batetik, gaur egungo ereduaren aldaketa sakona eskatzen dugu, eta hori lortu ezean nekez lortuko da bidezko gizarte bat. Baina, ez dugu eskaera honetan gelditu nahi. Aurrerago joan nahi dugu, gure eredu propioa dugulako. Horregatik tarte zabala eskainiko diogu gure alternatibak plazaratzeari". Labriteko ekitaldiaren ostean, manifestazio batek Iruñeako pilotalekua eta Nafarroako Gobernuak Sarasate pasealekuan duen egoitza lotuko ditu.

### • Urteko azken Nazio Kontseilua abenduaren 20an izango da, Eibarren

ELAk 2012. urteko azken Nazio Kontseilua –Kongresuen arteko organo gorena– ospatuko du abenduaren 20an, osteguna, Eibarren. Nazio Kontseilua 09:30tan hasiko da, Armeria Eskolako areto nagusian. Nazio Kontseiluak, besteak beste, aurtengo errepasoa egin eta datorren urteko helburuak eta erronkak jorratuko ditu. Gainera, urtarrilaren 23an eta 24an egingo den XIII. Kongresu Konfederalak ere tarte berezia izango du.

### • ELAk bat egiten du euskal presoen eskubideen alde 2013ko urtarrilaren 12an deitutako manifestazioarekin

Herrira mugimenduak deituta 2013ko urtarrilaren 12an, larunbata, euskal preso politikoen eskubideen aldeko manifestazioa izango da Bilbon. ELAk bat egiten du *Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira* leloa izango duen manifestazioarekin, eta bertan parte hartzeko gonbita luzatzen die sindikatuko afiliatu guztiei. Gainera, ELAk dei egiten du ere abenduaren 28an, hileko azken ostiralean, euskal preso politikoen eskubideen alde hiri eta herrietan izango diren bilkuretan parte hartzera.

### • EAEko Justizia Auzitegiak baliorik gabe utzi du Corrugados Azpeitiako lan erregulazio txostena

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak baliorik gabe utzi du Corrugados Azpeitiako zuzendaritzak aurkeztu zuen lan erregulazio txostena. Enpresako zuzendaritzak 60 langile kaleratzeko asmoa zuen –duela hilabete batzuk, ehun bidali zituen–; gainontzeko langileei soldata %35 jaitsi nahi zien, eta urteko lanaldia 49 ordu luzatu. ELAren ustez epaia oso garrantzitsua da, agerian uzten duelako zuzendaritzak ez zuela enplegu erregulazio txostena aurkezteko inolako arrazoirik. ELAk, bestalde, txalotu egin nahi du langileen jarrera. Mobilizazio ugari egin dituzte euren eskubideen alde, eta agerian utzi dute mobilizatzearen garrantzia.

### • ELAk oso positibotzat jotzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak Gabonetako ordainsaria ordaindu izana

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gabonetako ordainsaria ordaindu die instituzioko langile guztiei. Horrela, Foru Aldundiak bere hitza bete eta langileen ordezkariekin negoziatu eta hitzartutakoa bete egin du. ELAk oso positibotzat jotzen du Gipuzkoako Aldundiak, gai honetan ere, Madrilgo Gobernuak uztailean onarturiko Dekretuari aurre eginez harturiko erabakia. Bere erabakiari irmo eutsi eta etorkizunean eman daitezkeen gora-beheren aurrean bere erabakian mantendu dadila eskatzen dio eta Madrilgo Gobernuari, hemen harturiko erabakiak errespetatu ditzala, injerentziarik gabe.

**www.ela-sindikatua.org**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207